

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

**OSASUNA**

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasun Departamentuak 160.000 euro bideratu ditu Lehen Mailako Arretako beste 11 zentro eta kontsultategi ekografoz hornitzeko

*Ekipamendu berriak zentro hauetan instalatuko dira: Lesaka, Gares, Erriberri, Agoitz, Irurtzun, Orkoien, Ansoain, Iturrama, Txantrea, Antzin eta Los Arcos*

Osteguna, 2018.eko ekainak 7

Osasunbideak 160.000 euro bideratu ditu aurten 11 ekograforen erosketarako. Egun abian dagoen esleipen prozesua bukatu ondoren, ekografoak Nafarroan zehar banatutako osasun zentro eta kontsultategietan instalatzen hasiko dira datozen hilabeteotan.

Hauexek dira ekografo berriak hartuko dituzten osasun zentro eta kontsultategiak: Lesaka, Gares, Erriberri, Agoitz, Irurtzun, Orkoien, Ansoain, Iruñeko Osasun Eremuari (Nafarroako Iparraldea eta Ekialdea) dagozkion Iturrama eta Txantreako osasun zentroak eta Lizarrako Osasun Eremuari dagozkion Antzin eta Los Arcosekoak.

11 aparatua hauei 2015az geroztik erositako 35 ekografoak gaineratu behar zaizkie. Iruñeko Osasun Eremuan, hauexek dira ekipamendu hori duten zentroak: Uharte, Berriozar, Burlata, Noain, Sarriguren, Atarrabia, Zizur, Mutiloa, Doneztebe, Zangoza, Zaraitzu, Artaxoa-Larraga, Altsasu, Barañain, Cascante, Azkoien, Tafalla eta Iruñeko Mendillorri, Donibane, San Jorge, Ermitagaña, Buztintxuri, Arrotxapea, Azpilagaña, II. Zabalgunea eta Milagrosa auzoetakoak.

Lizarrako Osasun Eremuan, hauexek dira ekografoa duten osasun zentro eta kontsultategiak: Allo, Lizarra, Lodosa eta San Adrian; eta Tuterako Osasun Eremuan, Tuterako Ekialdea, Cintruenigo, Corella, Buñuel eta Valtierra.

Ekografoen horniketa Lehen Mailako Arreta indartzeko planean aurreikusitako neurria da, profesionalen erabakitzeko gaitasuna hobetzeko, hurrengo asistentzia-mailarako desbideratzeen orientazioa doitzeko eta pazienteei beharrezkoak ez diren desbideratzeak eta joan-etorriak saihesteko. Aurreikuspenaren arabera, 2019an, osasun zentro guztiek (58) izanen dituzte ekipamendu hauek.

### Prestakuntza plana

Teknikaren menpeko proba izanik, ekografia egiterakoan, egileak berriazko prestakuntza izan behar du. Ekipoak zentroetara iritsi ahala, ekografiak egiteaz arduratuko diren medikuntzako profesionali zuzendutako alde aurreko prestakuntza programa egin ohi da.

Osasunbidearen eta Osasun Departamentuaren lankidetzaz, 46 orduko prestakuntza-ibilbidea osatu da. Lehendabizi, ekografiaren

hastapenetan trebatzeko 3 orduko oinarrizko tailerra egingo da; gero Lehen Mailako Arretari zuzendutako 20 orduko oinarrizko ikastaroa; jarraian, ekografia abdominopelbikoan, tiroideoan, baskularrean eta muskuloeskeletikoan sakontzeko tailerrak (3na orduko 3 saio), eta bukatzeko, ekografia klinikoan sakontzeko 14 orduko tailerra. Gainera, aurten hasita, urtebeteko iraupena duen online ikastaria eskainiko da, eta horretan alde zuzeneko prestakuntza jasotzen duten profesional guztiak sartzea aurreikusi da.

Prestakuntza-programa hau diseinatu eta abian jartzeko, Nafarroatik kanpoko irakasleen nahiz Nafarroako Lehen Mailako Arretari atxikitakoen laguntza izan da. Orain arte, Osasunbideko 58 profesionalak osatu dute, edo osatzen ari dira, prestakuntza aldia. Lehen Mailako Arretako Gerentziaren helburua da etegabeko prestakuntza jarraituari eusteko moduko irakasle-talde egonkorra sortzea. Une honetan, gai honetan ospe handia lortu duten Lehen Mailako hiru profesional sartuta daude: Javier Mediavilla, Carmen Frauca eta José María Vazquez.

### **1.300 proba diagnostiko inguru azken urtean**

Ekografia klinikoa, kontsultaturiko arazoari konponbidea bilatzera zuzendutako proba da. Lehen Mailako Arretan sartu izanak gorputzaren barneko egiturak behatu, neurtu eta ebaluatzeko aukera ematen die profesionalari, segurtasunaren eta arazoa konpontzeko gaitasunaren mesedetan.

Horrelako probak osasun zentroan egiteko aukera izateak prozesua orientatzen laguntzen du, atzerapen diagnostikoak, desbideratzeak eta joan-etorriak saihestuz. Azken urtean, ekografoa duten Nafarroako osasun zentroek era horretako 1.300 proba egin dituzte.